

H100 - HIZKUNTZAREN ZUZENTASUNA, HITZEZ ETA IDATZIZ

H-100 LEHEN ZIKLOA (1-2)

1. – Euskaltzaindiaren araugintza berria
(TEORIA + ARIKETAK)
2. – Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua (EBAZ)
Ahoskera jasorako arauak
(TEORIA + ARIKETAK)

DEFINIZIOA:

- (1) Euskaltzaindiaren batasun-arauak morfologian, joskeran, lexikoan, ortografian eta ahoskeran. Zuzen idazteko gomendio eta proposamenak eta konbentzioak.
- (2) Boz gorako irakurketa zuzena: hitzen ebakera, intonazioa, prosodia unitateen bereiztea eta hitzarteen doinuera zaindua. Euskara Batuaren ahoskera zainduaz eta zaindugabeaz Euskaltzaindiak erabakitakoa.

HELBURUAK:

- (1) Ikasketariek Euskaltzaindiaren araugintzan eta estilistika gomendioetan sakontzea eta trebatzea.
Testuak gomendio eta arauon arabera eguneratzeko gaitasunaren jabe izatea.
Eskolako materialaren balizko desegokitasunez ohartzea eta beroriek zuzentzea.

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org



- (2) Ikasketariak euskararen ahoskera arauak ikastea eta erdal doinurako joera zuzentzea. Oinarrizko boz gorako irakurketan trebatzea. Ikasketariak Euskara Batuak izan ditzakeen ahoskera desberdinez jabetzea

METODOLOGIA:

- (1) Irakaslearen azalpenak entzunda edota irakurrita, berriaz prestatutako ariketetan eta testuetan uztartuta landuko dituzte edukiok.

Ikastaro honetan araugintzari eta estilo-gomendioei buruzko azalpen teorikoak lagun jarduera praktikoa jorratuko dira; beraz, izaera teoriko-praktikoa izango du.

- (2) Azalpen teorikoak emango dira eta teoria praktikara eramango boz gorako irakurketaren bitartez eta eredu jaso eta jatorrak entzunez.

EBALUAZIOA:

- (1-2) Ebaluazio jarraia.
Hasierakoa: IRALEk jardunbide-txostenean adierazitakoari jarraiki, ikastaro honetan parte hartzeko ikasketariak HE2, EGA edo azken honen baliokidea izan behar du.

Amaierakoa: ikasketariaren egunez eguneko jardueran oinarrituko da irakaslea ebaluazioa egiteko.

IKASTAROA NON-NOIZ:

- (1-2) Euskaltegian bertan eta Euskaltegitik kanpo ere bai, hala eskatuz gero.

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org



H-100 LEHEN ZIKLOA (3-4)

3. – Ohiko Akatsak: zenbait punturen berrikusketa
(TEORIA + ARIKETAK)
4. – Interferentziak, erdarakada arruntak, esan hobeto
(TEORIA + ARIKETAK)

DEFINIZIOA:

- (3) Eguneroko komunikazioan – ahoz zein idatziz- egin ohi ditugun akatsen azterketa eta zuzenketa.
- (4) Eguneroko komunikazioan – ahoz zein idatziz- izan ohi ditugun interferentziak eta kalkoen azterketa eta zuzenketa

IRAUPENA:

(3-4) 20 ordu

HELBURUAK :

- (3) Eguneroko komunikazioan – ahoz zein idatziz- egiten ditugun akatsez jabearaztea ikaslea, eta konponbidearen nondik-norakoen berri ematea.
- (4) Eguneroko komunikazioan – ahoz zein idatziz- izan ohi ditugun interferentziez eta kalkoez jabearaztea ikaslea, eta konponbideen nondik-norakoen berri ematea.

EDUKIAK:

- (3) Deklinabidea, aditza eta morfosintaxia.
- (4) Ohiko interferentzia, erdarakada eta kalkoen bilduma. Bildutako adibide traketsak abiapuntu, horien gaineko gogoeta lana egin ondoren haiek zuzentzeko aukerak eman.

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org



Horretarako, era honetako ariketak egingo ditugu:

- Aukeratu esaldirik zuzenena/ egokiena.
- Zuzendu esaldiak.
- Esaldiak euskaratu

METODOLOGIA:

(3) Bildutako adibide traketsak abiapuntu, horien gaineko gogoeta lana egin ondoren haiek zuzentzeko aukerak eman. Horretarako bi ariketa mota egingo ditugu:

- Okerrak zuzendu.
- Aukeratu esaldirik egokiena.
- Esaldiak euskaratu.

(4) Bildutako adibide traketsak abiapuntu, horien gaineko gogoeta lana egin ondoren haiek zuzentzeko aukerak eman. Horretarako, era honetako ariketak egingo ditugu:

- Aukeratu esaldirik zuzenena/ egokiena.
- Zuzendu esaldiak.
- Esaldiak euskaratu.

Oharra: ikasleen premien arabera, irakasleak gehiago edo gutxiago sakonduko ditu edukiak.

EBALUAZIOA:

(3-4) Ikaslearen egunez eguneko jardueran oinarrituko da irakaslea ebaluazioa egiteko.

IKASTAROA NON-NOIZ:

(3-4) Euskaltegian bertan eta Euskaltegitik kanpo ere bai, hala eskatuz gero.

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org



H 100 BIGARREN ZIKLOA (6-7)

6. – Idazmena I. Puntuazioa, argitasuna
(TEORIA + ARIKETAK)
7. – Idazmena II. Kohesioa/koherentzia mekanismoak
(TEORIA + ARIKETAK)

DEFINIZIOA :

(6) Oinarrizko puntuazioa ikasi, eta zuzentasuna eta egokitasuna bereizi.

(7) Testu argi eta komunikatiboak sortzeko, kohesioa eta koherentzia ezinbestekoak ditugu.

Kohesio eta koherentzia mekanismoak ikusi eta aztertu.

IRAUPENA:

(6-7) 30 ordu.

HELBURUAK :

(6) Testuaren argitasunean puntuazioak duen garrantziaz ohartarazi eta oinarrizko puntuazioa ikasi.

Era berean, zuzentasuna eta egokitasuna ez datozela beti bat ohartarazi eta horretaz jabetu.

(7) Kohesio eta koherentzia mekanismoek testu batean betetzen

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org



dituzten funtzioez ohartaraztea eta jabearaztea.

EDUKIAK

- (6) (PUNTUAZIOA) :
Oinarrizko puntuazio arauak eta berorien gaineko praktika kontrolatuak.
-Esaldiak, pasarteak eta testuak konparatu.
-Esaldiak, pasarteak eta testuak egoki puntuatu.

(ZUZENTASUNA/EGOKITASUNA):

- Esaldirik argiena aukeratu.
- Esaldiak eta pasarteak argitu.
- Estilo arazoak.
- Aposizioak.
- Ekintzazko eta moduzko osagarriak (gerundiozkoak).
- Galdegaia eta sintaxia.

- (7) -Perpau barruko kohesio-emaileak (juntagailuak eta menderagailuak).
-Testuko kohesio-emaileak (lokailuak, antolatzaileak, modalizatzaileak, erreferentzia-bideak eta elipsia).
-Tema-rema (informazio zaharra eta informazio berriaren arteko oreka).
-Testuaren barne-logikari erreparatu. Hurrenkera logikoa zein den aztertu.

METODOLOGIA :

- (6) Bildutako adibide traketsak abiapuntu, horien gaineko gogoeta lana egin ondoren haiek zuzentzeko aukerak eman. Horretarako, era honetako ariketak egingo ditugu:
- Aukeratu esaldirik zuzenena/egokiena.
 - Esaldien egokitasunaz gogoeta egin.
 - Esaldien ordena egokia bilatu.
 - Zuzendu esaldiak.
 - Esaldiak euskaratu.

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org



(7) Esaldiak eta testuak abiapuntu, testuon kohesio-emaileak eta koherentzia aztertu eta ikasi.

- Adibideak aztertu erabili diren kohesio emaileak aztertzeko.
- Gaizki kohesionatutako adibideak aztertu eta zuzendu.
- Berridazketak egin.
- Hutsuneak bete lokailu egokiak erabiliz.
- Hutsuneak bete erakusleak eta izenordainak erabiliz.
- Paragrafoak osatu emandako perpaus-sortak lotuz.
- Zenbait testuren koherentzia aztertu.
- Zenbait testutan dauden inkoherentziak aurkitu eta zuzendu.
- Nahasian emandako testu baten paragrafoak ordenatu.

EBALUAZIOA:

(6-7) Ikaslearen egunez eguneko jardueran oinarrituko da irakaslea ebaluazioa egiteko

IKASTAROA NON-NOIZ:

(6-7) Euskaltegian bertan eta Euskaltegitik kanpo ere bai, hala eskatuz gero.

H 100 BIGARREN ZIKLOA (8-9-10)

8. – Idazmena III. Eskutitzak, oharrak
(TEORIA + ARIKETAK)
9. – Idazmena IV. Iritzi artikulua
(TEORIA + ARIKETAK)
10. – Idazmena V. Txostenak
(TEORIA + ARIKETAK)

DEFINIZIOA:

(8-9-10) Goi-mailako hizkuntza gaitasun praktikoa (beregaintasun-maila, euskara idatziz zuzen eta egoki jarduteko gaitasun funtzionalari dagokionez)

IRAUPENA:

(8-9-10) 20 ordu

HELBURUAK:

(8-9-10) Testu konkretuak sortzeko baliabideak bereganatu, beti ere egokitasunari eta funtzionaltasunari erreparatuz. Testuak berak aztertu eta ezaugarriak bereizten ikasi.

EDUKIAK:

(8-9-10)

III. TESTU-ERAK: azalpena, eredia eta ariketa praktikoak.

OHARRAK

BILERA-DEIAK: gurasoei, langileei, eskola kontseiluari...

ZIURTAGIRIAK: bertaratze-ziurtagiria,
ikasketa-ziurtagiria
errolatze-ziurtagiria
matrikulatze-ziurtagiria...

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org



AKTAK

ESKABIDEAK: administrazioari.

GONBITAK: gurasoei, ikasleei, bezeroei, lankideei, herritarrei...

GUTUNAK: zerbait bidaltzekoak.
zerbait eskatzekoak.
zerbait jakinaraztekoak.

ADMINISTRAZIOKO BESTELAKO TESTU-ERAK: dekretuak,
diktamenak.

IV. IRITZI ARTIKULUAk : lineala, eklektikoak.

V. TXOSTENAK:

Informazio zehatza eta azkarra ematekoak (laburrak).
Gaiari buruzko datu guztiak egitura jakin baten barruan
ematekoak (luzeak).

METODOLOGIA:

(8-9-10) Ikasketarien lanari dagozkion testu ereduak erabiliko
dira, haiek berek behar dituzten baliabideak antzeman
eta bereganatzeko, eta hala, askotariko idazkiak
sortu ahal izateko.

Ikastaro honetan jarraitu beharreko eredu teoriko- praktikoa
izango da, hau da, ikasketariak sorturiko testuen gainean
lan egingo da, ahal dela, modu pertsonalizatuan. Beraz,
ikasketari bakoitzaren jarraipen zuzena egingo da.

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org



EBALUAZIOA:

(8-9-10) Ebaluazio jarraia ikasketariaren eguneguneko jardueran eta testu ekoizpenean oinarrituta.

IKASTAROA NON-NOIZ:

(8-9-10) Euskaltegian bertan edo euskaltegitik kanpo, hala eskatuz gero.

GARDOKI, 3 48008 BILBO • Tel: 94 4162472 • Fax: 94 4166568

E-mail zuzendaritza: zuzendaria@ulibbarri.org • E-mail idazkaritza: bulegoa@ulibbarri.org •

www.ulibbarri.org

